


EUSKAL AEko ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2011KO ABENDUA

## Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,6 igo ziren 2011ko abenduan, aurreko hilaren aldean

**Azken hamabi hilabeteetan (2010eko abendutik 2011ko abendura) eraikuntzaren kostuak % 1,8 igo dira.**

Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea: EUSTATEN datuen arabera, Euskal AEn eraikuntzako kostuen indizeak % 0,6 egin du gora 2011ko abenduan, aurreko hilabetearen aldean; bestalde, hilabete horretako urte arteko tasa % 1,8 igo da.

### Abenduko urte arteko aldakuntza-tasak, 2006-2011



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eraikuntzaren Kostuen Indizea

Aurreko hilabetearekin alderatuta, 2011ko abenduan eskulanaren kostuak ez du aldaketarik izan (% 0,0); lehengaien kostuek, ordea, % 0,8 egin dute gora.

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreetako lehengaien kostuek antzeko bilakaera izan dute abenduan: Eraikuntzakoak % 0,8 igo dira, eta Obra Zibilekoek % 0,6 egin dute gora, aurreko hilabetearekin erkatuta. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaera aztertuta ikusten da Eraikuntzako lehengaien kostuek % 1,4 egin dutela gora, eta Obra Zibilekoek % 3,6.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioei dagokienez, hamabi hilabeteotan inflazio-tasa handiena izan dutenak, besteak beste, Energia elektrikoa, gasa eta lurrina (% 20,1) Petrolioaren birfinketa (% 15,8), eta Industria kimikoa (% 6,7) izan dira. Baina ondoren ematen direnetan lehengaien prezioek urte batetik bestera (2010eko abendutik 2011ko abendura) behera egin dute edo igoera txikiagoa izan dute: Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa (-% 0,1) Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa (% 0,2) eta Metalurgia (% 0,3).

**ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. 2011KO ABENDUA. BEHIN-BEHINEKO DATUAK**

| GOIBURUAK                  | INDIZEA<br>2005 = 100 Oinarria | ALDEAREN %                |                                      |                            |
|----------------------------|--------------------------------|---------------------------|--------------------------------------|----------------------------|
|                            |                                | Aurreko<br>hilaren aldean | Aurreko urteko hil<br>beraren aldean | Aurreko<br>abenduen aldean |
| <b>KOSTUA GUZTIRA</b>      | <b>120,5</b>                   | <b>0,6</b>                | <b>1,8</b>                           | <b>1,8</b>                 |
| ERAIKINAK                  | 119,5                          | 0,6                       | 1,4                                  | 1,4                        |
| OBRA ZIBILA                | 124,4                          | 0,4                       | 3,0                                  | 3,0                        |
| <b>LEHENGAIEN KOSTUA</b>   | <b>119,9</b>                   | <b>0,8</b>                | <b>1,9</b>                           | <b>1,9</b>                 |
| ERAIKINAK                  | 118,6                          | 0,8                       | 1,4                                  | 1,4                        |
| OBRA ZIBILA                | 125,0                          | 0,6                       | 3,6                                  | 3,6                        |
| <b>LAN-ESKUAREN KOSTUA</b> | <b>122,9</b>                   | <b>0,0</b>                | <b>1,5</b>                           | <b>1,5</b>                 |

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

**Argibide gehiago:**

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: [eustat@eustat.es](mailto:eustat@eustat.es)

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago.

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua.